

PROBA ESPEZIFIKOA

2024ko PROBA

**ARTEAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Azterketa honek bi atal ditu:

1. ATALA: Bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

2. ATALA: Bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek 10etik 5 puntu balio du

1. ATALA

Aztertu eta iruzkindu bi irudi hauetako bat (5 puntu)

- Sailkatu obra, eta, horretarako, adierazi estiloa eta noizkoa den.
- Egin obraren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Azaldu ezazu, laburki, obra egin zen garaiko testuinguru historiko-artistikoa.

1A) Moises





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 URTETIK GORAKOAK

2024ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD: MAYORES DE 25
MAYO 2024

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

1B) “Euskal arrantzaleak”





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 URTETIK GORAKOAK

2024ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD: MAYORES DE 25
MAYO 2024

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

2. ATALA

Bi gai proposatzen dira, eta hazietako bat garatu behar da (5 puntu)

2 A) Arkitektura erromanikoa. Erromes-elizak eta monasterioak

- Arte erromanikoaren testuinguru historikoa.
- Arkitektura erromanikoaren ezaugarriak.

2 B) Modernismoa. Antoni Gaudí.

- Arkitektura modernistaren ezaugarri orokorrak.
- Europako korrante modernistak.
- Espainiako modernismoa: Antoni Gaudí.



ZUZENKETA-IRIZPIDEAK

Kalifikatzeko irizpideak:

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

Ebaluatzeko irizpideak:

Jarduera praktikoan kontuan hartuko dira irudiaren testuinguru historikoa eta kulturala, ikuspegi formaletik egindako iruzkin teknikoa eta estiloa, garaia, kronologia eta autorea —hala badagokio— kokatzeari dagokiona.

Jarduera teorikoan, kontuan hartuko dira erantzunaren zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta koherentzia, egituratzea eta hiztegi espezifikoaren kalitatea. Estiloen, arte-mugimenduen edo autoreen eta obren ezaugarri espezifikoak.

1. ATALA:

Aztertu eta iruzkindu bi irudi hauetako bat (5 puntu)

- Sailkatu obra, eta, horretarako, adierazi estiloa eta noizkoa den.
- Egin obraren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Azaldu ezazu, laburki, obra egin zen garaiko testuinguru historiko-artistikoa.

1A) Moises

Moises da, XVI. mendeko eskultura errenazentista bat, Italiako Cinquecentoko artista garrantzitsuenetariko batek egina: Michelangelo Buonarrotti. Julio II.a aita santuaren hilobiko irudi nagusia da, Erromako San Pietro in Vincoli elizan. Mukulu biribileko eskultura bat da, eseria, eta Carrarako marmolez egina. 1515ean amaitu zen. Hasieran, Julio II.a aita santuaren hilobi-monumentu independentearen parte gisa sortu zen, beste 47 estatuarekin batera, baina aita santuaren hilobiaren gune nagusi bihurtu zen gero.

Proiektu hori murriztuz joan zen arrazoi ekonomikoengatik eta familiarrengatik (aita santua hil ondoren), harik eta Michelangelok hilobi atxiki gisa diseinatu zuen arte. Beraz, obra aurrealdetik baino ezin da ikusi.

DESKRIBAPEN FORMALA

Moises eserita eta legearen taulak daramatzala ageri da **konposizio itxi eta klasiko** honetan; ardatz bertikal batean egituratuta dago burutik profetaren hanken arteko toleseraino. Profetaren irudiak lerro zuzen bertikal banak



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

zedarritzen dute alboetako bi muturretan. Bada **contrapposto txiki** bat (nahiz eta jarreraz eserita egon), buruaren biraketak eta hala goranzko ezker-besoaren eta beheanzko eskuin-besoaren arteko nola kanporanzko ezker-zangoaren eta barruranzko eskuinekoaren arteko konposizio simetrikoak markatua. Lerro zuzenak bi lerro kurbatu paralelok gozatzen eta konpentsatzen dituzte: bizar luze kizkurrak ezkerreko besoraino eratzen duena eta eskuineko beso luzatuan hasita ezkerreko hankaraino doana.

Konposizio horrekin, artistak **mugimendua** iradokitzen du; muskuluak tentsioan daude, baina ez dago mugimendu-ekintzarik. Hala lortzen du koloso hau **egundokoa** gertatzea. Moisesek, bere herriaren desleialkeriagatik haserre bizian, burura itzuli eta jaikitzaera egiten duen unea hartzen du. Amorru hori, "**terribilita**", haren begitartean adierazten da, bekozko beltz eta anker batean uzkiurtua, laster lehertuko den amorrua iragarritz.

Modelatzea perfektua da; Michelangelok buztina balitz bezala tratatu zuen marmola. Estudio anatomikoak **naturalismo** harrigarria du (profetaren besoetan atleta baten indarra eta tentsioa nabari dira, nahiz eta profeta jada heldua izan). **Marmol zuri leunduak** argia labaintzen uzten du. Arropak naturalismo handiko **tolesetan** erortzen dira, eta argi- eta itzal-contrasteek **bolumen** irmoa ematen diote irudiari.

Eskultura honetan, **estilo errenazentistaren** ezaugarriak ikus ditzakegu: edertasun idealaren bilaketa, naturalismoa, giza irudiarekiko eta anatomiarekiko interesa, garai humanistako kultura antropozentrikoari dagokion bezala. Antzinate klasikoko kanonak berreskuratzen dira: konposizio orekatuak, harmoniatsuak, mugimendu potentziala eta perfekzio teknikoa.

Moises adarrekin ageri da, "tximista" eta "adarra" hitzak hebreeraz antzekoak direlako. Sinbolismo ikonografiko mota hori ohikoa zen Errenazimentuko arte sakratuan.

Batzuek eskultorearen beraren erretratu idealizatua ikusi nahi izan dute Moises obran, edo Julio II.a aita santuarena, zeina gertari beldurgarria eta buruzagi espirituala izan baitzen, profeta biblikoa bezala. Beste batzuek uste dute natura osatzen duten elementuen sinboloa izan daitekeela; hala, bizarrak ura irudikatuko luke, eta ileak suaren sugarrak. Michelangelorentzat, bizitza aktiboaren eta kontenplatioaren bat-egitea sinboliza lezake, ideal neoplatonikoaren arabera.

Lan honetan, argi dago Laokoon talde helenistikoaren aurkikuntzak (1506) harengan izan zuen eragina.

GAIA



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 GORAKOAK

2024ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD: MAYORES DE 25

MAYO 2024

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Gaia biblikoa da (Itun Zaharreko pasarte bat): Moises profetak, Sinai mendian egindako berrogei eguneko egonalditik itzultzean, Legearen Taulak besapean zeramatzala israeldarrei erakusteko, izaturik ikusten du israeldarrak, Jahveh (Jehova) gurtzeari utzita, Urrezko Zekorra gurtzen ari direla.

EGILEA

Michelangelo Buonarotti, Italiako Cinquecentoko jeinu polifazetikoa. Maisutasunez aritu zen arlo guztietan (arkitektoa, pintorea, poeta), baina bere burua eskultoretzat du. Bere lanetan ideia bat adierazi nahi du, zentzu neoplatonikoan: ordena intelektual baten adierazpena den edertasun bat. Michelangeloren bizitza osoa ahalegin titaniko bat izan zen forma materia hertsatzailetik askatzeko. Zalantzarik gabe, **artista erabatekotzat** har dezakegu.



1B) “Euskal arrantzaleak”

“Euskal arrantzaleak” izeneko pintura-lana da. Mihise gaineko olio-pintura. Valentin Zubiaurre Agirrezabal margolari euskalduna da egilea, eta Donostiako San Telmo museoan dago.

Valentin Zubiaurrek XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen parte bateko **euskal pintura kostunbrista** tipikoa landu zuen, Euskadiko jendearen ohiturak irudikatzen zituen. Gai-ugaritasun txikiko pintura da; euskal pintura erregionalista errealista deitua da, XX. mendearen hasierako abangoardia historikoen barruan kokatua.

DESKRIBAPEN FORMALA

Lau irudi erakusten ditu obrak: bi emakume eta bi gizon, euskal gizakiak; gizonak marinelak dira. Idazlanean bizitzaren etapak islatzen dira; ezker aldean, eserita otordurako ogi biribila moztzen ari den emakumeak heldutasuna eta lasaitasuna islatzen du; eskuinaldeko gizonak arrantzale helduak dira, eta begitarte serioa dute, azpil bat daraman gaztearen poztasunari kontrajarria. Buru gainean arrain-otarra daraman emakumea euskal margolarien irudi ikonografiko garrantzitsuenetako bat da. Haren obraren ezaugarriak kolorea eta tonu leunak dira, ingerada garbiak eta irudi guztien bolumenetako sendotasun deigarria, pitxerraren, azpileko sagarrei eta zamau zuriaren argitasunari esker lortua.

Lehen planoan, egileak natura hil bat margotu du, eta buztinaren ezaugarriak nabarmendu ditu. Euskal gizakiak protagonista dituzte haren margolanek, eta kolore horizta da nagusi, maiz, konposizioan; jantzien koloreak, berriz, eten egiten du hondoa.

Pertsonaiek izaera deskribatzaile nabarmena dute, modeloen estudio fisonomiko eta psikologiko sakonaren ondorioz; hieratismoa ageri dute, zurrun tratatuta daude, konnotazio sinbolikoz hornituak, eta irudikatutakoa idealizatzeko joera nabari da. Egileak bere herrialdeko gizakiak, fisikoak nahiz moralak, ordezkatzeko dituztenak sortu nahi ditu. Eta haien bizitzako mina, tristura edo xalotasuna adierazteko erabiltzen ditu. Deskribatzen ditu, bai kanpoko eta pintoreskoa, bai pertsonaien egoera emozionalak. Horregatik, haren giza irudiak bizitasun handikoak dira, eta aurpegiak eta eskuak oso adierazkorrak.

GAIA

Euskal kostaldeko parte handi baten jarduera erakusten du obra: arrantza. Arrantzaleak kofradietan biltzen dira; izaera erlijioso eta segurtasun-izaerako erakundeak dira, eta haietan parte hartzen zuten arrantzaleen emakumeek ere: XIX. mendean, hogeita hamar kilometrorainoko bidaiak egiten zituzten arraina barnealdeko herrietara eramateko, eta beste hainbeste bueltan.



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

XIX. mendeko eta XX. mendearen parte bateko pintura kostunbrista folklorismoz betea dago, erregionalista deritzo, eta errealismo-forma nahiko eraginkorretarantz eboluzionatu zuen. Tradizioa arriskuan jartzen duen gizarte industrial baten garapena zen, eta hori kaltegarria zen nekazari-oinarriko erregionalismoarentzat.

Euskal gizartearen egitura bi poloren inguruan zentratu zen: sektore aurrerakoia, nahiko politizatua, proletariotza industrialetik hornitzen dena eta migrazio-fenomenoen ondorioz gero eta euskal jatorri txikiagoa duena, eta, haren gainean, burgesia industrial eta nekazarien eta arrantzaleen sektore askoz tradizionalagoa. Beren arbasoengandik jasotako antzinako mundu bati lotutako izaki batzuen ohiturak eta herri-sinesmenak idealizatzen ditu.

Kostunbrismo mota horren irudikapen piktorikoan euskal gaiak eta Gaztelako gaiak ugari dira, non irudien sendotasuna kolorismoaren zentzu sakon batekin uztartzen baita. Naturalismoa eta inpresionismoa nagusi ziren garaian, Zubiaurrek pintura intelektualagoa egiten zuen, bat eginarazten zituela bere artearen maisutza eta ideiarekin lanketa intelektualak. Horregatik, ez zitzaion erraza gertatu aitoren ofiziala lortzea, eta zenbait tipo eta konposizio behin eta berriro errepikatzearen bizioa egotzi zitzaion.

EGILEA

Valentin Zubiaurre Ramon Zubiaurreren anaia zaharrena izan zen: bi pintoreak gormutu jaio ziren. Valentin Zubiaurre konpositorearen semeak ziren, jatorriz Bizkaikoak, baina Madrilen bizi izan ziren, aita han lan egiten baitzuen. Valentinek San Fernando Arte Ederren Errege Akademitan ikasi zuen, eta 1905 eta 1906 artean Parisen eta Europan ibili zen.

Euskal Herriko eta Gaztelako taxuko irudiak margotu zituen, eta, oso estilo definituarekin, lur horietako pertsonak, paisaiak eta ohiturak erakutsi zituen. Euskal mundu tradizionala, landakoa edo itsasokoa, interpretatu zuen, giza taldeen askotariko irudikapenarekin, eta ikonografia- eta giro-errepertorio adierazgarria sortu, pertsonaien psikean barneratzen dena. Gai berberei buruzko bertsio piktorikoak egin zituen: erromeriak eta landa-giroko bestelako jaiak, oturuntzak eta eskaintzak, komunitate- edo familia-ospakizunak.

Atzerriko egonaldiak abangoardiak aztertzeke aukera eman zioten, eta, batez ere, mendebaldeko pintura-tradizioari buruzko ezagutza osatzen lagundu zioten. Tradizio hori funtsezkoa izan zuen bere estiloa konfiguratzeko, eta, gainera, Espainiako artista garaikide ospetsuenetako batzuen eragina ere izan zuen, hala nola Ignacio Zuloagarena.

2. ATALA



Bi gai proposatzen dira, eta haitako bat garatu behar da (5 puntu).

2 A) Arkitektura erromanikoa. Erromes-elizak eta monasterioak

- **Arte erromanikoaren testuinguru historikoa.**
- **Arkitektura erromanikoaren ezaugarriak.**

Arte erromanikoa Europako nazioarteko lehen estilozat hartzen da, tradizio erromatarren eta eragin prerromaniko eta bizantziarren batura gisa. XI., XII. eta XIII. mendeetan garatu zen, herrialdeen arabera. XI. mendearen lehen herena "milurtekoaren beldurrarekin" lotuta dago, hau da, mundua milagarren urtean bukatuko zelako uste orokortuarekin. Data fatidikoa igaro ondoren, Jainkoarekiko zorraren sentipen bat zabaldu zen, Elizarekiko eta kongregazio erlijiosoekiko jarrera ona eta santutegi askoren eraikuntza ekarri zuena.

Erdi Aroko mendeen ezaugarri izan ziren erromesaldiei estu lotutako artea da. Horregatik, ezinezkoa da erromanikoa eta Erromarako, Lurralde Santurako eta Compostelako Donejakerako erromesaldiek hartu zuten goraldia bereiztea. Done Jakue bidea izan zen erromesaldirako biderik garrantzitsuenak.

Baina ez zen fenomeno erlijiosoa soilik izan; salgaiak, pertsonak eta kulturak trukatzeko baliabide indartsua ere izan zen bidea. Erromesak babesteko eta haien premiak asetzeko beharrak bultzatuta, hainbat eraikin altzarazi ziren Donejakerara eramaten zuten ibilbide nagusietan. Hala, ibiltariak artatu eta hartzeko lehen ospitaleak sortu ziren, hiri zaharrak garatu eta berriak sortu, eta, laster, merkataritza- eta biztanleria-gune garrantzitsu bihurtu ziren.

Ekonomiaren goraldi hori bat etorri zen, halaber, mendebaldeko Europako erresuma kristauen sendotzearekin eta gizartea hiru taldetan antolatzen zuen sistema feudala finkatzearekin. Talde bakoitzak ondo bereizitako funtzioak zituen: borrokatzen zirenak, otoitz egiten zutenak eta lan egiten zutenak.

Europar erromanikoa agertzea ekarri zuten funtsezko bi inguruabarrak erromesaldien gorakada eta Clunyo Ordenaren protagonismoa izan ziren, ezbairik gabe. Kristautasuna Frantziako bide naturaletan barrena zabaldu zen. 909. urtean, Clunyn (Burgundia), ordena klunitarra sortu zen, eta haren hedapenak eragin handia izan zuen kultura eta arkitektura erromanikoan. Hala, Odilon, XVI. mendearen lehen erdian, abadiarik abadia ibili zen soiltasuna eta beneditarren diziplinaren errespetua zabalduz. Garai hartako erdigunerik garrantzitsuenak **Clunyo monasterioa** izan zen. Haren mendeko monasterioen egitura bat sortu zuen, arte erromanikoa mundu osoan zabaltzea sustatu zuena.



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Monasterioa eliza batez osatuta dago, eta, Elizaren inguruan, eraikin multzo bat dago: klaustroa, bazkaltokia... Unitate ekonomiko beregaina da, beste edozein botere laiko edo erlijiosorekiko independentea, eta aita santuari baino ez dio zor errespetua.

Ekintza-askatasun hori izanik, eremu sozial, politiko, ekonomiko eta militarreko erabakietan parte hartu zuen abadiak Europako erresumetan. Bere tamaina monumentalagatik eta ordena klunitarraren eraginagatik, abadia horrek oso zeregin nabarmena izan zuen arkitektura erromanikoaren historian (1789ko Frantziako iraultzan suntsitua izan zen).

IX. mendetik aurrera, Europan gune espiritualak eta erromesguneak sortu ziren, eta gar erlijioso handia eragin zuten: adibidez, Compostelako Donejakue. Landa-inguruneko erromanikoan edo erromaniko txikian, elizek nabe xume bat eta, portadaren ondoan, hegal irtenik gabeko eta dorrerik gabeko abside bat besterik ez zuten; **erromes-eliza** handiek, berriz, batez ere monasterioetakoek edo santutegietakoek, zeinen eginkizun nagusia baitzen santuen erlikiak gurtzera zihozten erromesak hartzea, egitura konplexuagoa zuten.

Eraikin berebiziko honen **oinplanoak** bost nabe zabal ditu, transeptu bikoitza, koru giroladun bat eta bost kapera erradial. Multzoaren aurretik nartexa (edo galilea) dago, hiru naberekin eta fatxada arkupetu batekin, alboetan dorre bana dituela.

Gurutze latindarreko oinplanoa oso ohikoa da kristautasun latindarraren elizetan, eta, bereziki, Erdi Aroko beneditarren eliza monastikoetan (Cluny eta Zister) eta Done Jakue bideko erromanikoko erromes-elizetan garatu zen.

Transeptua eta gurutzadura oso zabalak izan ohi dira, eta alboko nabeek, kapera nagusiaren inguruan luzatuta, girola eratzen dute –deanbulatorio edo nabe erdizirkular bat–; girolaren inguruan, absidioloak zabaltzen dira koroa gisa. Deanbulatorioak eraikin baten barruan edo kanpoan eraikitzen dira, eta ibiltzeko baino ez dira erabiltzen. Termino hori erabiltzen da, batzuetan, eraikin baten inguruko bide estali bat izendatzeko —espazio ireki baten inguruan, adibidez— monasterio-eliza baten klaustroak bezala, eta erromesen joan-etorrirako pentsatuta dago bereziki. Besoetako batetik zuen sarbidea, alboko nabetik igarotzen zen eta, handik, erlikiak zeuzkaten kaperetara irits zitekeen.

Hormaren **altxaerak** bi maila zituen: arku formeroen arkuteriarena eta tribunarena. Tribunari esker erromes gehiago har zitezkeen, eta aukera ematen zuen, halaber, erdiko nabea zeharka argiztatzeko. Eraikin osoa inguratzen du, baita galeria gisa ere girolaren inguruan, eta zaintza-funtzioa betetzen du.

Eraikin horien **estalkia** erabat gangatuta dago arku erdizirkularrez eta kanoi-gangaz.



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Kanpoaldean, gurutzaduraren gaineko dorreak edo zinborioak argizatze-funtzio garrantzitsua du.

Hiru fatxada garrantzitsu izan ohi dituzte, eta hiruretan edo, gutxienez mendebaldean, programa ikonografiko zabal bat izaten da, izaera didaktiko eta sinbolikoko eskulturaz apaindua.

Erromesaldia egiteko leku nagusietako bat **Compostelako Donejakue** zen, Frantziatik iristen zena lau erromesbidetan barrena. Bide horietan erromes-eliza handi bana zeuden: Done Saturdi Tolosakoa, Santa Fe Conqueskoa, San Martzial Limogeskoa eta San Martin Tourskoa. Bosgarrena, berriz, Compostelako Donejakue katedrala, bidearen amaieran zegoen, eta bederatzi dorrerekin proiektatu zen.

820 eta 835 urteen artean Campus Stellaen aurkitu zen ("izarraren eremua" esan nahi du) Jakue apostoluaren hilobia. Izen hori du zeren, mirariaren arabera, Teodomirori izar bat agertu baitzitzaion leku hori adieraziz. Horren ondorioz, kristau fededun askok bisitatu nahi izan zuten, eta horrek balio izan zuen musulmanei konkistatu berriak zizkieten lur haiek birpopulatuko zituzten kristauak erakartzeko.

Pixkanaka, hiria garatuz joan zen, batez ere inguruko herrietatik etorritako etorkinez osatua. Gainera, aita santuak eta kristandadeak aukera ikusi zuten aurkikuntzan gurtzaleku berri eta garrantzitsu bat bultzatzeko, oso beharrezkoa baitzen Lurralde Santua galdu ondoren.

Gainerakoa, Clunyo beneditarren ordena boteretsuak egin zuen. Hari eman zion Asturietako Alfontso II.a erregeak, Alfontso Kastoak, erlikiak zeuden lekua zaindu eta mantentzeko ardura.

2 B) Modernismoa. Antoni Gaudí.

- Arkitektura modernistaren ezaugarri orokorrak.
- Europako korrante modernistak.
- Espainiako modernismoa: Antoni Gaudí.